

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA DURANGALDEAN | LOS OLLEROS DE DURANGO | HARRIA ETA LARRUA
S.O.S. ARRIPOZUETA | ARQUITECTURA: EL PESO DE LA FORMA | SANTI KAPANAGA. OTXANDIOKO ERRETRATUGILEA
ARGIÑETA: UN LUGAR DONDE VIVIR HACE 1200 AÑOS | ARRAZOLA, UN FENÓMENO ASTRONÓMICO

astola


ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

14.zk 2020 • 5e

PASA



 Txelu Angoitia

SANTI KAPANAGA

Otxandioko erretratugilea



Duela ia mende bat, August Sanders argazkilari alemanak bere herrikide askoren erretratuak egin zituen, lanbideen inbentario osatua eratuz.

Erretratu horietan oinarrituta, garai hartako Alemaniaren argazki handia egin zuen, handik denbora gutxira, Europa infernu bilakatuko zuen Alemaniarena.





Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan, Richard Avedon argazkilaria estatubatuarrek bere furgoneta hartu eta Estatu Batuetako mendebaldea zeharkatu zuen, bertako biztanle askoren erretratuak eginez, fondo zuriaren aurrean. Bere lanak *In the american west* izena hartu zuen.

Badirudi hori izan zela Santi Kapanagak bere herrian, Otxandion, 50eko hamarkadaren amaieran eta 60koaren hasieran, lan egiteko erabili zuen modua. Argazkigintzako beste pertsona handi batek, Virxilio Vieitezek, Galiziako bere lurrian gauza bera egin zuen garai berean.





Erreferentziatzko beste argazkilari askok bezala, Kapanagak eguneroko bizitzako eszenak ere jaso zituen, baina, haiek bezala, beste ezer baino lehen erretratugilea zen.

Sarritan esaten da arterako asmoa dela lan bat (kasu honetan argazki bat) arte bilakatu dezakeena. Kapanagaren kasuan, ez dakigu bere erretratuetan ba ote zegoen bestelako asmorik, euren argazkiak izan zitzaten bere herrikideei argazkiak ateratzeaz aparte, baina badakigu bazuela arterako jakin-mina, eta horrek, ondoren, pinturaren mundura eraman zuen. Hil arte landu zuen diziplina izan zen. Sarri askotan, bere margolanak egiteko berak aurretik hartutako argazkiak erabili zituen modelo moduan.

 Santiago Kapanagaren autorretratoa.







1923an Otxandion jaiotako Santik bi anai-arreba izan zituen, Bittor eta Lourdes. 10 urte zituela aita hil zitzaion, eta bi urte geroago gerra zibila hasi zen. Gerra zibileko gertakarietako batek asko markatu zuen, hegazkin frankistek Otxandio bonbardatu izanak, hain zuzen ere.

Faxistek 1936ko uztailaren 22an bonbardatu zuten Otxandio. Bonbardaketak Santi erdian harra-patzeaz gain, bonben ondorioz bere izeko, osaba eta hiru lehengusu hil ziren. Urte batzuk geroago, 1964an, zorigaitz pertsonal hori xehetasunez betetako margolan batean irudikatu zuen. Margolanean, egun latz hartan hil ziren herrikide guztiak agertzen dira.









Santik Eibarko Armagintza Eskolan ikasi zuen, Bittor anaiarekin batera, eta herri horretan egin zuen lan erretiratu arte, *Anitua&Cia* enpresan. Lan horrek Venezuelara ere eraman zuen, bertan eskopeta lan-tegi bat muntatzera. Astegunetan Eibarren bizi zen, eta asteburuetan Otxandiora itzultzen zen.

Ia bere erretratu guztiek fondo xumeak daramatzate, eta horrek nabarmendu egiten du bertan agertzen diren pertsonen garrantzia. Sarri askotan, herriaren kanpoaldean aurkitutako fondoak dira, ibilalditxo batek sortutako topaketak balira bezala.

Bere argazki gehienak bertikalak dira, argazkilarien artean oso ohikoa ez zen formatua, baina oraingo honetan ulergarria da, erretratugilearen begirada zuelako. 35 mm-ko Voigtländer kamera aleman batekin egiten zituen argazkiak, eta azken garaietan Pentax bat erosi zuen arren, ez zuen erabili. Zuri-beltzeko argazkiak ateratzen zituen, baina ez zuen inoiz bere laborategia izan.

Bere artxibategian herriko ekitaldietako argazkiak ere aurkitzen ditugu, jaiak edo familia-zeremoniak. Baina, ziurrenez, erretratua izango da bere distira ondoen erakusten diguna.



Santiago Kapanaga 2008an hil zen, baina, aurretik, zabalik utzi zigun XX. mendearen erdialdeko Otxandio erakusten digun leihoa, bere erretratuetan agertzen diren pertsonen bitartez.

Eta, agian, hori izango da argazkilarioi oraindik geratzen zaigun egiteko bakar eta umila: atea irekitzea. Denboraz, espazioaz eta emozioaz egindako leihoak.